

Udalerriko Eguneko Arretarako Landa Zentroko langileen lan-baldintzak sektore publikokoekin parekatzeko eskatzen dio LABek Amurrioko Udalari

Aspaldi bideratu zuen LAB sindikatuak bere ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboko estrategia zaintza sistema publikoa lortzera. Hego Euskal Herriko administrazioei pribatizatutako zaintza langileen publikazioa exijituz eta zaintza zerbitzuen kudeaketa publikoa aldarrikatuz.

Bide honetan, etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileekin batera, zerbitzu honen pribatizazioarekin bukatzeko eta bertan lanean aritzen diren langileen publikazioari bide emateko urrats ezberdinak eman ditugu.

Amurrioko Udalaren kasuan, LAB sindikatutik, Eguneko Arretarako Landa Zentroko (EALZ) langileekin batera, zerbitzua hobetzeko, lan baldintzak duintzeko eta zerbitzuaren kudeaketa publikoaren aldeko lanean hasi gara. Lehen helburua EALZ zerbitzuko langileen lan baldintzak udaletxeko langileen lan baldintzekin parekatzea izan da. Amurrion zerbitzua kudeatzen duen enpresa pribatuarekin parekatzea negoziatzeaz gain, udalaren borondatea eta inplikazioa ezinbestekoak dira, Amurrioko Udalak zerbitzuaren lizitazioan langile hauen lan baldintzak arautuko dituelako eta langileen lan baldintzen ekiparazioa sostengatu beharko duelako.

Azken urtean zehar, zerbitzuaren pleguak berritu baino lehenago, hainbat bilera egin ditugu udalarekin, eta haien hitzetan badute zaintza sistema publikoaren alde urratsak emateko borondatea, eta pribatizatutako zaintza langileen lan baldintzak hobetzearen aldeko apustua egiten dutela adierazi digute.

Aldiz, azken hilabete hauetan, nahiz eta borondate politikoa adierazi, prozesua moteltzen eta gelditzen ari dela salatu beharra dugu LABetik. Azken asteetan udaletxea bilerak atzeratzen ibili da eta horregatik arduratuta gaude eta dakigunez, zerbitzuaren eta langileen baldintzak arautuko dituen plegua publikatzeaz dago. LABetik Amurrioko Udalari bere konpromisoarekin aurrera egiteko eman beharreko urratsak ematea eskatzen diogu. Ardura politikoa ezinbestekoa delako eta Amurrioko biztanleek zaintza arreta zerbitzu duina jasotzea beharrezkoa dutelako. Bestalde, zerbitzu honetan lanean ari diren langileen lan baldintzak duintzea beharrezkoa da, langile publikoen baldintzekin ekiparazioaren bitartez, pribatizatutako zaintza langileek lan publikoa egiten dutelako.